

Mendika koxkor

FRUITU KOXKORREN BILA dabilena ezin kexatuko da aurtengo uzta dela eta. Mendika astalarrosa (*Rosa canina*) aitatu berria dut, baina bes-telakoetatik ere ugari eta on dugu. Uda nolakoa izan denak, asko lagundu du. Hezetasuna da gure lur atlantikoetako landareen arazo latzena. Oro har, urzaleak dira, baina lureko eta aireko urak bere tamainatik gora egiten duenean, landareak kaltetzen dituzten ond-
doak erruz ugaritu eta erasokorra-
go bihurtzen ditu. Aurtengo uda lehorrak beste aldekoa ekarri du. Ur eskasiak gaitzak atzendu ditu, eta landareek urritasun hori ere sufrituagatik gehienek iraun dute. Fruituak sekula baino ttattarrago-
ak ikusi ditugu udan, baina sasoi horren amaierako ihintzek eta euri apurrek koxkor kaxkarrak koskor-
tzea ekarri du. Gaitzik gabe gar-
biak eta ur gehiegirik gabe haziak, kalitate goreneko igaliak dira aur-
tengoak. Atzo bertan nioen sagar-
dogile bati, bertako sagarrekin taxuz egindako sagardoak, sekula-
ko onenak izango ditugu hurren-
go udan. Taxuz diot, askok eta askok astakeria latza egiten baitu: sagarra arbolatik erortzeko heldu-
tasunera iritsi gabe dagoenean, haga luzearekin jo eta moildu, eraitsi. Heldu gabeko sagarretik halako sagardoa.

Sagarra biltzen da, baina garai batean neguan elikatzeke biltzen genituen makina bat fruitu utziak



LUC VIATOUR / WWW.LUCNIX.BE

Astalarrosaren (*Rosa canina*) lorea.

ditugu. Horrela mendikak, astalar-
rosa delakoa adibidez. Saparlarra, luisalea, otsolarra... Izen ugari duenez bere ekosistemakoak gara, gu gara bere lurretara bizitzera etorriak. Aspaldian negurako bildu, jaso eta zainduko zen fruitua dela zalantzarik ez izan. Europa iparraldera joanez gero, landu egiten dute, astalarrosadiak dituzte, gure sagardien tankera bertsuan. Baita jan ere. Bere koxkor-
rarekin egindako zopa ezaguna da, baita potoetako kontserba gozoak ere, erreximentak eta abar.

Lagun baten ama eibartarra,

Dorita, astalarrosa eltzean dantza-
tzen iaioa da. Ahosabaia garunpe-
tik zerura igotzen dute bere jeleek eta marmeladek. Azken hori egi-
tea zaila da oso, aspergarria da banaka-banaka koxkorrak haziz eta iletzoz huestea. Jelea errazagoa da: eltzekada fruitu urez estali eta ordu eta erdiz egosi, iragazi, gozatu eta nahi izatera kamamila lore edo menda hosto gutxi batzuk erantsi. Aho-
gozoa zerura doa artean arnasketa goxatzen eta kata-
rroa baretzen du. ■



GOIZPER

50 urte baino gehiago merkatuko liderrak izanik, berritzaileak izateko konpromisoarekin jarraitzen dugu, zer eta gure bezeroei produktu zein zerbitzurik onena eskaintzeko.

- Ihintzagailuak: lorezaintza, nekazaritza, industria, bektor kontrola eta etxerako
- Industria sektorerako potentzia transmisiorako osagaiak

Antigua Kalea, 4 ANIZUOLA (Gipuzkoa) • Tel. 943 78 60 00 • www.goizper.com

